



2007-2011 TOKIKO AGENDA 21EKO EKINTZA PLANAREN EZARPENAREN EBALUAZIOA

AURKIBIDEA

1. DOKUMENTUAREN AURKEZPENA.....	3
2. DURANGOKO TOKIKO AGENDA 21	5
3. DURANGOKO TOKIKO AGENDA 21EN 2012-2020 EKINTZA PLANAREN EZAUGARRIAK	7
4. DURANGOKO TOKIKO AGENDA 21EN EKINTZA PLANAREN EZARPEN-MAILA ETA ERAGINA	12
4.1. EKINTZA PLANAREN EZARPEN-MAILAREN BILAKAERA	12
4.2. EKINTZA PLANAREN EZARPENAREN EBALUAZIOA ETA ERAGINA ILDO ESTRATEGIKOEN ARABERA	16
4.2.1. 1. ildo estrategikoa: garapen ekonomiko orekaturantz aurrera egitea.....	16
4.2.2. 2. ildo estrategikoa: Udaleko kudeaketa-politika hobetzea.....	20
4.2.3. 3. ildo estrategikoa: udalerriaren garapen soziala bultzatzea.....	23
4.2.4. 4. ildo estrategikoa: hirigintza orekatuaren alde egitea eta hirigunearen kalitatea hobetzea.	28
4.2.5. 5. ildo estrategikoa: udalerriko ingurumen-kalitatea hobetzea.....	33
I. ERANSKINA. EKINTZA PLANAREN AKZIOEN ERLAZIOA.....	40

1. DOKUMENTUAREN AURKEZPENA

Iraganetik
ikasten...

Ebaluazio-prozesua proposatutako helburuen eta lortutako emaitzen arteko balantzean oinarritzen da batez ere, balorazio-irizpide zehatzen azpian sortutako itxaropenen asebetetze-maila egiaztatzeko moduan. Kasu zehatz honetan, ebaluazio-jarduna ezarritako helburuak lortzerakoan izandako arrakasta-maila zehaztean, eta udalerriko kudeaketaren tokiko jasangarritasuneranzko joera antzematean oinarrituko da, eta Tokiko Agenda 21 prozesuko partaide guztien konpromiso-maila eta partaidetza-maila ere baloratuko da, bai Durangoko Udaleko arduradunena, bai herritarrena oro har.

Izan ere, Durangoko Tokiko Agenda 21ek jarraipenezko izaera argia du, eta beraz, ebaluazio honetan, garrantzitsuena arrakasta duten alderdi eta proiektuak identifikatzea da, baina baita udalerriko arazoak eta ezarritako prozesuaren akatsak edo prozesuari buruzko bat ez etortzeak antzeman eta hobeto zehaztea ere. Horrela, aurrera egiten duen etapa berriarentzako oinarritzko elementuak identifikatuko dira, 2012-2020 bitarteko ekintza-plan berria bideratzeko helburuarekin.

Azterketa
kuantitatiboa

Horretarako, lehenik, Plana osatzen duten 120 ekintzen aurrerapen-maila aztertu eta jasangarritasun-adierazleen bilakaera ikertu da MUGI 21 tresnatik ateratako informazioaren bidez. Halaber, 2009ko Tokiko Iraunkortasunaren Txosteneko informazioa ere kontuan hartu da.

MUGI 21 tresnari dagokionez, IHOBE Ingurumena Kudeatzeko Sozietateak eta Udalsarea 21eko Idazkaritza Teknikoak garatutako tresna da, Tokiko Agenda 21eko kudeaketa eta segimenduko prozesu nagusien kudeaketa integratua erraztu eta biziartzen duena.

Illo horretan, jarraian zehazten diren alderdietan sakontzea azpimarratu da bereziki, 2007-2011 Ekintza Planaren garapenean sortu ahal izan diren arrakastarako alderdiak eta zailtasunak argitzen lagunduko baitute.

- Jasangarritasun-adierazleen bilakaera.
- Aurreko plana indarrean egon denean aurreratuak egon ez diren lehentasun handiko ekintzak identifikatzea.
- Hasi ez diren edo gutxi aurreratu diren ekintzak identifikatzea.
- Ebaluazioaren ondorioz berriz egin diren ekintzak identifikatzea.
- Eraginkortasuna ekintzen plangintza eta burutzapenean.

Azterketa kualitatiboa.

Bestalde, aztertutako datuek eskaini dezaketen ikuspegia osatzeko, banakako elkarrizketa eta batzar batzuk egin dira, Udaleko arduradun politikoei, udal-teknikariei, udalaz kanpoko eragileekin eta Tokiko Agenda 21eko partaidetza-batzarretan parte hartu duten pertsonekin. Guztira 19 elkarrizketa eta harreman burutu dira. Halaber, ekintza-planaren azterketa-prozesuaren aurkezpena dela-eta egin zen herritarren lehenengo foroan bildutako ekarpenak eta jasangarritasun-adierazleen ebaluazioko lehenengo datuak (2012ko maiatzaren 17an egindako batzarra) ere kontuan hartu dira.

Beraz, Plan berria garatzeari begira, lortutako informazioak balio handia izango du alderdi positiboei ("ondo egin diren gauzak"), hobetu behar diren alderdiei, identifikatzen diren ahuleziei,... buruzko hausnarketa egiteko, ondo dagoena mantendu edo hobetzeko eta Plan berriaren proposamenean halako ahulezia bat ekar dezaketen jarrerak ekidin edo aldatzeko.

Bildutako informazio guztitik abiatuta. Durangoko Tokiko Agenda 21eko 2007-2011 Ekintza Planaren Azken Ebaluazio Dokumentu hau egin da. Dokumentu honek informazio kuantitatiboa edukitzeaz gain (adibidez: ekintzen aurrerapen-maila, adierazleen bilakaera, etab), Durangoko Tokiko agenda 21eko ahulezia eta sendotasunei, alderdi kritikoei buruzko informazio kualitatiboa eta Tokiko Agenda 21en bidez burututako arrakastadun proiektuekin lotutako informazioa ere badu.

2. DURANGOKO TOKIKO AGENDA 21

Lurraren
Gailurraren
ospakizunetik
20 urte.

Tokiko Agenda 21, ingurumen-hobekuntza, gizarte-hobekuntza eta hobekuntza ekonomikorako, laburbilduz, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko udal-konpromisoa da. Rio de Janeiron 1992ko ekainean egindako Ingurumenari eta Garapenari buruzko I. Munduko Konferentziako (Lurraren Gailurra) ardatzetan oinarrituta abiarazi zen.

Tokiko Agenda Tokiko Ekintza Planaren, jasangarritasun-irizpideak udal-politikan sartzeko epe labur eta ertainerako tresnaren, inguruan egituratzen da.

Aalborg-eko
Gutunaren
onespenetik
10 urte.

Durango jasangarritasunaren aldeko apustua egin zuen 2002ko uztailaren 18an, eta Durangoko Udaleko Osoko Bilkurak aho batez, Jasangarritasunerantz doazen Europako Hirien Kanpainaren bidez "Aalborg-eko Gutunean" agertzen diren printzipioak berrestea erabaki zuenean begi-bistan geratu zen. Atxikipen horrekin, Durangoko Udalak udalerrian Tokiko Agenda 21, jasangarritasunerantz joateko tokiko kudeaketa-tresna, ezartzearen aldeko apustua egin zuen.

2006ko azaroan Durangaldeako Udaltalde 21 sortu eta abiarazteko akordioa sinatu zen. Bertan, Durangoz gain, eskualdeko beste hamar udalerrik ere parte hartu zuten.

2006ko
Maiatza:
Iraunkortasun
diagnostikoa
egiten.

Hortik aurrera, Tokiko Agenda 21eko foroa abiarazi zen Durangon, eta jasangarritasunaren diagnostikoa eta Tokiko Agenda 21eko Ekintza Plana burutzeko lehenengo pausuak ematen hasi zen. Horrela, jasangarritasunaren diagnostikoa izan zen I. 2007-2011 Ekintza Plana burutzeko abiapuntua eta oinarriak eman zituen tresna. Jasangarritasunaren diagnostikoa 2000ko abenduaren 21eko osoko bilkuran onetsi zen.

2006ko
Abendua:
Tokiko
Agenda
21eko I.
Ekintza
Planaren
onespena.

Herritarren eta udal-eragileen parte-hartzea oinarritzko elementua izan zen Ekintza Plana diseinatzeko, eta egun, Durangoko Tokiko Agenda 21eko oinarritzko zatietako bat da, eta baita eragilea ere.

Tokiko Ekintza Planaren onespenerekin, Durango Udalsarea 21en, Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarean, sartu zen.

Durangok Udalsarea 21en izan duen zeregina gero eta garrantzitsuagoa izan da, eta izan duen parte-hartzea gero eta aktiboagoa. Tokiko Ekintza Planaren Ebaluazio eta Segimendu Programetan urtero izan duen bere partaidetzaz gain, Durango protagonista izan da Ekitaldiak, Auzolan 21 edo Berrigurumena bezalako zerbitzuetan.

Durangoko
Tokiko
Agenda
21eko
elementu
gakoa parte-
hartzea da.

Gainera, herritarren partaidetzari dagokionez, Tokiko Ekintza Plana 21en esparruan burututako lana, Udalsarea 21eko Tokiko Jasangarritasunaren Sarien bigarren urtean aintzat hartu da, Proiektu Berritzaileen kategorian. Herritarren, zein udal-eragileen partaidetzan izan duen ibilbideagatik, eta parte hartu duten eragile guztiek adostutako oinarri metodologikoan oinarritzen den partaidetza-prozesuaren finkapena lortzeagatik jaso du Durangok saria.

Beraz, Tokiko Agenda 21en ezarpenak, bai ekintza-planean sartutako jarduketa eta proiektuak, bai ekintza-planaz kanpokoak abiarazi ditu.

Aro berri bat
hasten da...

Aurrerantzean, Tokiko Agenda 21en Ekintza Planaren berrazterketarekin etapa berri bat hasten da. Etapa horrek udalerriko gizarte eta ingurumeneko diagnostikoaren idazketa eta udalerriarentzako Ekintza Plan Berriaren zehaztapena barne hartzen ditu, beste jarduketa batzuen artean. Hori guztia, Udaleko teknikari eta politikarien artean sustatutako barneko partaidetza, zein eragile eta herritarren kanpoko partaidetzak osatutako partaidetza-prozesuan oinarrituta. Beraz, Diagnostikotik ateratako ondorio nagusienetatik abiatuta, Durangoko Udalarentzako Ekintza Plana edo ibilbide-orria zehaztu behar da, hurrengo zortzi urteetarako.

Herritarren eta eragileen parte-hartzea funtsezkoa izango da Durangoko jasangarritasunerako etorkizuneko proiektuak diseinatzeko. Zentzu horretan, hainbat partaidetza-bide abiaraziko dira, partaidetza-foroetatik hasi eta web tresna eta gizarte sareetaraino, hori guztia herritar eta eragileen ahalik eta partaidetza handiena erraztearen mesedetan.

Tokiko Ekintza Plana Durangoko Udala sartuta dagoen Udalsarea 21, Udalerrien Euskal Sareak, diseinatutako metodologia komunak adierazitako arauetan oinarritzen da.

3. DURANGOKO TOKIKO AGENDA 21EN 2012-2020 EKINTZA PLANAREN EZAUGARRIAK

a) Ekintza-planaren kudeaketa-eredua

Durangoko Tokiko Agenda 21en kudeaketa-eredua ezaugarri hauetan oinarritzen da:

Udaletxetik
laguntza eta
buruzagitza.

- Ø Alkatetzaren laguntza kategorikoa eta Garapen Jasangarriaren Batzordearen buruzagitza.
- Ø Koordinazio operatiboa Tokiko Agenda 21eko teknikari-kudeatzailearen bidez.
- Ø Esku-hartzen duten sail eta zerbitzuek dituzten arduren zehaztapen argia eta beraien parte-hartze aktiboa herritarrekin egindako batzarretan.
- Ø Mugi 21 tresna ekintza-planaren betearazpena jarraitzeko.
- Ø Herritarren partaidetza-mekanismo irekiak ekimenak diseinatu eta burutzeko, eta baita ekintza-planaren jarraipena egiteko ere.

Tokiko
Agenda
21eko
teknikaria
AL21-aren
garapen
egokiaren
gakoa.

Zentzu horretan, nabarmena da, Tokiko Gobernuak Tokiko Agenda 21 sustatzeko izan duen buruzagitza eta eskainitako laguntza, eta horixe erakusten dute horretarako jarritako baliabideek. Baliabideak hurrengo kapituluetan zehazten dira.

Ekintzen garapenaren jarraipen orokorra egiteko sailen arduradun teknikoak batzen zituen organo edo egiturarik ez zegoenez, tokiko agenda 21eko teknikariak egindako koordinazio eta kudeaketa lana azpimarratu behar da, gainera gaiari buruzko erreferente nagusia da Udalean.

Dena den, arduradun politiko eta udaleko sailen arduradunen parte-hartzeaz gain, funtsezkoa izan da herritarrekin batera burututako lana ekintza asko garatzeko.

Zentzu horretan, 2007an herritarren foroaz gain, beste formula bat bilatzeko beharra antzeman zen, Udaleko teknikarien eta foroan parte hartzen duten pertsonen artean, guztiak batera, proiektuak garatu ahal izateko.

5 Ildo
Estrategiko

21 programa

120 ekintza

EKINTZA PLANAREN ILDO ESTRATEGIKOAK


1. IE. Garapen ekonomiko orekatu, dibertsifikatu eta iraunkorragoaren aldeko apustua egitea.
2. IE. Udaleko kudeaketa-politika hobetzea.
3. IE. Udalerriaren garapen soziala bultzatzea.
4. IE. Hirigintza orekatuaren alde egitea eta hirigunearen kalitatea hobetzea.
5. IE. Udalerriko ingurumen-kalitatea hobetzea.

Ildo estrategikoak tokiko lurralde osoa barne hartu duten ekintza-ardatz garrantzitsuak izan dira. Hasieratik, Ekintza Planean biltzen ziren ekintza guztiek jasangarritasunaren hiru ardatzak (ingurumen-jasangarritasuna, jasangarritasun soziala eta jasangarritasun ekonomikoa) modu orekatuan barne hartzea nahi izan bada ere, aipatu beharra dago Ekintza Plana duen ingurumen-izaeragatik nabarmentzen dela.


Ekintza
Planaren
ezaugarri
nagusiena
bere
ingurumen
izaera da.

Baieztapen hori ekintza-planeko ekintzen %43k (5.ildo estrategikoa) azken helburu gisa "ingurumen kalitatea hobetzea" edukitzeak bermatzen du. Era berean, ekintzen %22ren helburua "hirigintza orekatua eta hirigunearen kalitatea hobetzea" da. Eta ulergarria da, 2005-2006 aldian ingurumen-arazo larriak antzematen baitziren (airearen kalitate eskasa, mugikortasun jasangarrirako irizpide falta, uraren kudeaketa hobetzeko beharra, etab.) Aldiz, udalerriko eta eskualdeko jarduera ekonomikoen adierazleek goranzko joera zuten.

1. Grafikoa. Ildo estrategiko bakoitzeko ekintzak



2. Grafikoa. Lehentasunaren arabera ekintzak.



Iturria: guk egindakoa.


Bestalde, ekintzen erdiak baino gehiago lehentasun altukotzat jo ziren, beraz, Durangoko etorkizuneko garapenerako garrantzitsutzat jo ziren.

C) Burutzeko planifikatutako baliabideak

Plana burutzeko planifikatutako eta dauden baliabideei dagokienez, aurreikusitako inbertsio ekonomikoa 9.520.250 eurokoa da. Dena den, ekintzen ia %60k ez duela aurrekontu-hornidurarik azpimarratu behar da, Udalaren beraren langile eta bitartekoen bidez burutzeko diseinatu baitziren. Beraz, aipatutako zenbateko ekonomikoa plana burutzeko udalak ez dituen kanpoko zerbitzuak kontratatzeko eta bitartekoak erosi eta lortzeko da.

Aurreikusi-
tako
inbertsioa:
9,6 miloi
euro.

3. Grafikoa. Ildo estrategiko bakoitzeko aurreikusitako inbertsioa.



Iturria: guk egindakoa.

Aurreikusi-
tako
inbertsioaren
% 63a
"ingurumen
kalitatea
hobetzer" zuzendua.

Ildo estrategikoen araberako aurrekontu banaketari dagokionez, aurrekontuaren erdia baino gehiago 5. ildo estrategikoan erabili zela argi ikus daiteke. Ildo estrategiko horren helburua udalerriko ingurumena hobetzea da, eta beraz planaren ingurumen-izaera indartzen du. Aurrekontuaren %22 aldiz, laugarren ildo estrategikorako ezarri da (hirigintza-kalitatea hobetzea). Eta azkenik, 1. ildo estrategikorako ez da hornidura ekonomiko zehatzik ezarri, hasierako plangintzaren arabera ildo estrategiko horren barneko ekintzak Udalak dituen baliabide eta bitartekoekin egingo baitira.

4. DURANGOKO TOKIKO AGENDA 21EN EKINTZA PLANAREN EZARPEN-MAILA ETA ERAGINA


4.1. EKINTZA PLANAREN EZARPEN-MAILAREN BILAKAERA

a) Ekintza-planaren ezarpen-maila

2007:Ekintza
Plana
martxan
jartzen da.

Tokiko Agenda 21en Ekintza Plana Udalbatzak onetsi zuen 2006ko abenduan. Behin betiko onetsi ostean, programatutakoan oinarrituta, 2007an abiarazi zen. Jarraian planaren urtez-urteko ezarpen-maila agertzen da, ekintzen aurrerapen-mailaren arabera.

4. Grafikoa. Ezarpen mailaren bilakaera urteen arabera.



Iturria: guk egindakoa.

Ekintza
Planaren
ezartzeak
Udalean
kudeaketa
kultura berri
bat sartzea
suposatzen
du.

Segur aski, betearazi behar zen lehenengo urtean egon zen zailtasun gehien ekintza-planaren kudeaketari dagokionez. 2007an, programa ezarri zen. Horrek koordinazio eta informaziorako bideak (Udalaren barnekoak eta kanpokoak) ezartzea, helburuak eta burutu beharreko zeregin zehatzak ulertzea dakar, eta noski, baita beharrezko baliabideak jartzea ere. Diagnostikoko eta plana egiteko aurretiko faseetan, herritarren partaidetza garrantzitsua izan zen, eta beraz, erronka handia da herritarrekin batera ekintzen ezarpen eta betearazpenean lanean jarraitzea, Udalaren barnean kudeaketa-kultura eta lan-kultura berria sortuz.


2008:
Partaidetza
modeloaren
definizioa.

Bestalde, 2008an, Tokiko Agenda 21en herritarren partaidetza-eredua zehaztu zen, lantalde zehatzen formularen bidez (Irisgarritasunaren Lantaldea, Mugikortasun Jasangarriaren Lantaldea, Airearen Kalitatearen eta Kalitate Akustikoaren Lantaldea eta Aldaketa Klimatikoaren Lantaldea) eta herritarren foro irekiaren bidez, eta eragin oso positiboa izan zuen ekintzen betearazpen-mailan. Eredu honen esparruan, Udal-mailan Garapen Jasangarriaren Batzordea eratu zen barneko organo erabakitzaile eta eztabaidarako foro gisa.

Ekintza
Planaren
%73a ezarrita
dago.

2011n, ekintza planaren¹ ezarpen-maila %73koa zen eta ildo estrategikoen arabera aztertuz gero, gehien aurreratutako ildoak bigarrena (udal-kudeaketa hobetzea) eta hirugarrena (garapen soziala hobetzea) direla ikus daiteke. Ezarpen-maila gutxiago duten ildoak aldiz, bosgarren eta laugarren ildoak dira hurrenez hurren, baina garrantzi gehien duten ildoak ere badira, barne hartzen dituzten ekintzen kopurua kontuan hartuz gero.

5. Grafikoa. Ildo estrategiko bakoitzeko ezarpen maila.



Iturria: guk egindakoa.

10
ekintzetatik
8 exekutatu
daude edo
amaitze
fasean.

Ekintzen betearazpen-mailari dagokionez, hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, ia ekintzen erdiak (%41) guztiz bete dira, eta ekintzen %37 aldiz amaitzeaz daude. Dena den, zehaztasun bat egin behar da amaitzeaz dauden ekintzei buruz, izan ere IHOBERen gida metodologikoaren arabera, denboran jarraipena duten ekintzak, hots, urtez urte jarraian/errepikatuz burutzen diren

¹ Ekintza Planaren ezartze maila kalkulatzeko formula:

- (P) Hasteko dauden ekintzen balioa: 0
- (I) Hasita dauden ekintzen balioa: 25
- (A) Aurreratuak dauden ekintzen balioa: 50
- (F) Amaitzeaz dauden ekintzen balioa: 75
- (C) Amaituak dauden ekintzen balioa: 100


$$\text{Ezartze maila} = \frac{[(P \cdot 0) + (I \cdot 0,25) + (A \cdot 0,5) + (F \cdot 0,75) + (C \cdot 1)]}{N} \cdot 100$$

ekintzak ez dira guztiz amaitutzat jotzen aurreikusitako zereginak burutu eta ezarritako helburuak lortu arren.

Ekintzen %8a
"haste"ko
dago.

Bestalde, ekintzen %8 "haste" daude, eta egoera horretan egoteko zergati nagusia Udalaren beraren eskumenekoak ez izatea da, horrexegatik ezin izan dira abiarazi.

6. Grafikoa. 2011ko Ekintza Planaren ezarpen egoera.



- Oraindik hasi gabe: aurrerapenaren % 0.
- Hasita: aurrerapenaren % 25.
- Aurreraturata: aurrerapenaren % 50.
- Amaizten: aurrerapenaren % 75.
- Osatua: aurrerapenaren % 100.

Iturria: guk egindakoa.

b) Erabili diren baliabideak

Ekintza-plana burutzeko erabili diren baliabideei buruz, balioespen objektiboa burutzea oso zaila dela aipatu behar da, baliabideen balioespenean burutzen denean, ez baita ekintza-plana garatzeko beharrezko inbertsioa (Udalaz kanpoko baliabide eta zerbitzuak eskuratu eta kontratatzeke erabiltzen den zenbateko ekonomikoa) bakarrik kontuan hartu behar, baita Udalak berak bere zerbitzu teknikoaren ardura eta bere bitartekoen antolaketaren bidez egin duen ahalegina ere. Ildo horretan, egun ezin daiteke teknikarien ardura eta Agenda 21eko arduradun politikoena baloratu, ezta ekintza-planean ezarritako helburuak lortzeko tokiko agenda 21en eskura jarri dituzten bitartekoak ere.


Eginiko
inbertsioa
15,6
miliardakoa
izan da.

Ildo horretan, egin daitekeen balorazio bakarra ekintzen betearazpenak ekarri duen inbertsio ekonomikoa zehaztea da, eta baita betearazpenean parte hartu duten sail eta arloak zehaztea ere.

Ondorioz, ekintza-plana garatzeko egindako inbertsioa 15.620.932,18 eurokoa izan da, hasiera batean aurreikusitakoa baino 6.100.682,18 euro gehiagokoa.

Hurrengo grafiko honetan agertzen den bezala, ildo estrategikoen arabera banaketa ere ez da izan aurreikusi zena:

7. Grafikoa. Ildo estrategiko bakoitzeko egindako inbertsioa..



Iturria: guk egindakoa

Inbertsio ekonomikoaren banaketa ildo estrategikoen artean aurreikusi-takoarekin alderatuz gero orekatuagoa izan da.

Beraz, ondoriozta daiteke, inbertsio ekonomikorik gehiena ildo estrategiko hauetan erabili dela: lehenik, 5. ildo estrategikoa (ingurumena hobetzea), horretarako inbertsio ekonomikoaren %36,28 erabili da; 4. ildo estrategikoa, horretarako inbertsioaren %29,6 erabili da (hirigintza-garapen orekatua); eta hirugarren lekuan 3. ildo estrategikoa dago (garapen soziala) ildo horretarako inbertsio osoaren %28,8 erabili da. Halaber, 1 eta 2. ildo estrategikoetan egindako inbertsioen batukaria inbertsio osoaren %5,18 da.

Bestalde, nabarmendu beharra dago, 5. ildo estrategikoa betetzeko burututako inbertsioa aurreikusitakoa baino txikiagoa izan dela nabarmendu behar da.

Udalaren giza baliabideei dagokienez, ekintza-planak duen zeharkako izaera dela-eta, estrategiak eta ekintzak burutzeko Udaleko arlo, sail eta zerbitzu ia guztien parte-hartzea beharrezkoa izan da, beren zerbitzu tekniko bidez.

Proiektuen diseinuan disziplina ezberdinen ikuspegia barneratzea ahalbideratu du.

Zentzu horretan, Udaleko 14 sail eta zerbitzu ekintza-plana osatzen duten ekintzen buru izan dira, are gehiago, ekintza ugariren betearazpenak zerbitzu batzuen arteko elkarlana eta koordinazioa ekarri du. Beraz, Agenda 21ri aitortzen zaion meritua nagusienetako bat zerbitzu eta sailen artean sortu den elkarlaneko dinamika da, proiektuen diseinuan disziplina anitzeko ikuspegiak eta irizpideak sartzea erraztuz.

4.2. EKINTZA PLANAREN EZARPENAREN EBALUAZIOA ETA ERAGINA ILDO ESTRATEGIKOEN ARABERA

4.2.1. 1. ildo estrategikoa: garapen ekonomiko orekaturantz aurrera egitea.

a) Ildo estrategikoaren ezarpen-maila

Ildo estrategiko honetan planeko ekintza guztien %6 sartzen dira eta helburu nagusia “aurrerapen ekonomiko orekatua” izatea da. Aipatutako helburu estrategikoa lortzeko, bi ekintza-programa zehazten dira, dagozkien ekintzekin: landa-eremuko garapena eta dibertsifikazio industrial sustatzea hurrenez hurren.

Hurrengo taulan ekintza-programak eta bakoitzak barne hartzen dituen ekintza kopurua biltzen dira.


EKINTZA PROGRAMAK					EKINTZA KOPURUA
Ø	1.1	P	Nekazaritza ekologikoa sustatzeko programa.		3 ekintza
Ø	1.2	P	Udalerrian dibertsifikazio industrial sustatzeko programa.		4 ekintza

2 jarduera eremu: nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa eta dibertsifikazio industrial


Horrela, lehenengo ekintza-programaren barnean dauden ekintzak nekazaritza ekologikoa eta abeltzaintza sustatu eta bultzatzeko diseinatutako ekimenak dira. Bigarren ekintza-programan aurreikusitako programak berri, ingurumeneko produktu edo zerbitzuak ekoizten dituzten enpresen bidez jardura industrialaren dibertsifikazioa sustatzeko dira (ikusi dokumentuaren I. eranskina 1. ildo estrategikoaren ekintza zehatzak zeintzuk diren jakiteko).

Zehaztutako ekintzen ezaugarriei dagokienez, ekintzen %86 “lehentasun txikikotzat” hartzen dira eta gainerako %14k “lehentasun ertaina” dute, beraz ez dago “lehentasun handia” duen ekintzarik. Halaber, ekintzen %86ren betearazpena epe laburrerako programatuta dago.

5. Grafikoa. Lehentasunaren arabera
ekintza %-k.




6. Grafikoa. Gauzatze-epearen
arabera ekintza %-k.



Iturria: guk egindakoa.

Ezarpen-egoerari dagokionez, ekintza bat ere ez dago hasierako fasean (hasteke edo hasita) eta ekintzen %57 inguru betetzen ari dira eta amaitzeaz daude.

7. Grafikoa. 2011ko ezarpen maila.



Iturria: guk egindakoa.

Ekintzen
%100a
aurreratuak
eta osatuak
daude.

b) Erabili diren baliabideak

Egindako
inbertsio
osoaren
% 0,38a.

Aurrekontu gutxien aurreikusita zuen ildo estrategikoa da eta aurrekontu gutxien erabili du. Dena den, garrantzitsua da datu hori erlatibizatzea, ekintzak diseinatu ziren unetik, Udalak dituen baliabideekin eta ekintzak betearazteko ardura zuten eragileekin garatu litezkeela uste izan baitzen.

Beraz, erabilitako aurrekontua 60.000 eurokoa izan da eta ekintzen betearazpenean parte hartu duten sailak hauek izan dira: Kontu-hartzailletza, Kontratazioa eta Udal Ondarea, Tokiko Agenda 21 eta Ingurumena, eta Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak ere parte hartu du.

c) Garatutako ekintzaren eragina eta Balorazioa

Txosten honetan zehar ikusi ahal izan den bezala, ekintza-plana diseinatzeko fasean, garapen ekonomiko jasangarriaren strategiari ez zitzaion garrantzi handirik eman. Erakutsi diren datuak kontuan hartuz, nabarmena da ondorioztatzea, 2006.urtean udalerraren "garapen ekonomiko orekatuak", garrantzitsua izan arren, ez zuela lehentasunik, oparoaldi ekonomikoko garaia baitzen.

Baina gogorarazi beharra dago, dena den, jarduera industrial dibertsifikatzeko beharra antzematen zela batez ere, Durangon ezarritako enpresen tipologia ia sektore bereberkoa baitzen (asko galdaketa-sektorekoak).

Tokiko zerga
sistema
jarduera
tresna
nagusiena.

Lehenengo programako, zein bigarren programako ekintzak garatzeko Udalak erabaki duen estrategia nagusia tokiko zerga-arloak eskaintzen dituen tresnak erabiltzea izan da. Ildo horretan, abiarazi diren neurri gehienak nekazaritza ekologikoaren sustapena eta ingurumen-sektoreko sustapena errazten duten hobariak eta salbuespen fiskalak sartzearekin lotuta daude.

Zentzu horretan, jasangarritasun-adierazleak ditugu estrategien eragina neurtzeko, baina egia esan, garatutako ekintzak duen eraginaren ikuspegi partziala eskaintzen dute. Beraz, adierazle batzuk ez datoz guztiz bat ekintzen helburuarekin, eta beste batzuk ez dute datu nahikorik. Horregatik ezin daiteke nahi den joeraren azterketa zehatza burutu.

Jasangarritasun-adierazleak	2007	2008	2009	2011	Joera desiragarria	Balorazioa
Langabezia-tasa (%)	%5,8	%9,2	%11,4	%11,1	Gutxitzea	Negatiboa
Enpresen sorrera (establezimendu kopuruaren saldo garbia) ²	3,9	4,7	% 1,	-	Gehitzea	Negatiboa
Eskaintza komertziala-azalera komertziala (m2/1000 bizt)	1.479,1	1.484,8	1.474,3	-	Gehitzea	Negatiboa
Herritarren asebetetzea dauden lan-aukerei dagokienez	-	1,9	-	-	Gehitzea	-

Iturria: guk egindakoa.

Aurrera emandako ekintzen inpaktu erlatiboa izan dute.

Etorkizuneko Ekintza Planerako garapen ekonomiko jasagarria lehentasune-ko alorra izango da.

Dena den, hartutako neurrien eragina ez da oso handia izan. Gainera, egoera ekonomikoaren aldaketa eta krisialdi ekonomikoaren ondorioz, langabezia-tasaren adierazleak joera ez desiragarria izatea ekarri du azken urteotan, 2010etik aurrera susperraldi arina ikus daitekeen arren.

Elkarriketetatik eta herritarren foroan jasotako ekarpenetatik lortutako ondorioetatik abiatuta, garapen ekonomiko jasagarria konpondu gabeko arazoetako bat dela ikus daiteke, eta egun garrantzi berezia duela enpresen egoeragatik, eta baita langabezian dagoen biztanleriaren gehitzeagatik ere. Ildo horretan, Durangok eduki behar duen estrategiak ikuspegia hirukoitza izan behar duela aipatzen da: "Durango zerbitzuen hiria", bertako produktuen aldeko apustua (bertako nekazariak sustatzea) eta udalerriko enpresa industrialei laguntza ematea.

² Adierazlearen kalkulua: establezimenduen saldo garbia urtean (altak-bajak) udalerrian 1.000 biztanleko.

4.2.2. 2. ildo estrategikoa: Udaleko kudeaketa-politika hobetzea.

2 jarduera
eremu:
partaidetza
kanalak
irekitzea eta
udaleko
informazioar
en
irigarritasun
a bermatzea.


a) Ildo estrategikoaren ezarpen-maila

Bigarren ildo estrategikoa 10 ekintza ditu 2 ekintza-programetan taldekatuta, eta ekintza guztien %8 dira. Ildo estrategikoaren helburu nagusia Udalaren kudeaketa hobetzea da. Horretarako, lehenengo ekintza-programaren helburua herritarren parte-hartzea sustatzea da, hainbat bide ezarritik; bigarren ekintza-programak berriz, herritarrekiko arreta eta informazioa hobetzea du helburu gisa. (ikusi I. eranskina 1. ildo estrategikoaren ekintza zehatzak zeintzuk diren jakiteko).


EKINTZA PROGRAMAK		EKINTZA KOPURUA
Ø	2.1 P Udal-kudeaketan partaidetza sustatzeko programa	2 ekintza
Ø	2.2 P Udal-kudeaketa eta interes orokorreko informazioaren hedapena hobetzeko programa	8 ekintza

Ildo estrategiko hau osatzen duten ekintzen ezaugarriei dagokienez, ezaugarrien erdiek "lehentasun handia" dute, eta beste erdiak "lehentasun txikia". Bestalde, ekintzen %60 epe laburrean garatzeko programatu dira.

8. Grafikoa. Lehentasunaren arabera ekintza %-k.




9. Grafikoa. Gauzatze-epearen arabera ekintza %-k.



Iturria: guk egindakoa.

Ildo estrategikoaren ezarpen-mailari dagokionez, ekintzen %90 amaituta edo amaitzean daude, zehazki 2 ekintzetatik 1 amaituta dago dagoeneko. Egun, ekintza bat bakarrik dago "hasteke", egia esan, ekintza bat izango litzateke.

10. Grafikoa. 2011ko ezarpen maila.



Iturria: guk egindakoa.

Ekintzen
%90a
amaituak eta
amaitzean.

b) Erabili diren baliabideak

Inbertsio
osoaren
%4,8a
suposatu du.

Ekintzak burutzeko egindako inbertsioa 749.239,65 eurokoa izan da, hasiera batean aurreikusitakoa baino 357.239,65 euro gehiagokoa. Inbertsio gehien behar izan duten ekintzak hauek izan dira: HAZ zerbitzuaren ezarpena, udaleko web orrialdea dinamizatzea eta tokiko agenda 21i buruzko informazioaren hedapenarekin lotutako ekintza.

Bestalde, ekintzen betearazpenean parte hartu duten udal-sailak hauek izan dira: Alkatetza, Tokiko Agenda 21 eta Ingurumena, Informatika, Giza Baliabideak eta Kontratazioa eta Udal Ondarea.

c) Garatutako ekintzaren eragina eta balorazioa

Ildo honen helburu nagusia udal-kudeaketa hobetzea izan da, partaidetza-bide berriak zabaltzeko neurriak ezarriz eta herritarrek informazioa izatea bermatuz. Izan ere, ekintza-plana burutzeko prozesuan garrantzi handikotzat jo zen eragile eta herritarrei partaidetza-bideak irekitzea, eta baita udal-informazioa eskuragarri izatea ere.

Bestalde, azken helburu hori udal-zerbitzuek herritarrenganako arretaren hobekuntzarekin ere lotu zen.

Zentzu horretan, ildo estrategiko hau funtsezkoa da Tokiko Agenda 21ek ondo funtziona dezan, herritarren partaidetza-bideak bermatzearekin batera udal-informazioa eskuragarri izatea baita kontua.

2. Irudia. Informazio-aula.
Zumalakarregi Kalea.



Egindako
ekintzen
balorazio
positiboa eta
Tokiko
Agenda 21a
partaidetza
kanal bezala
ekimen
positibotzat
jotzen da...

Neurri zehatz batzuk hartu dira adierazitako helburuak lortzeko: Herritarrentzako Arreta Zerbitzua (HAZ) abiaraztea; tokiko agenda 21en web orrialdea; udalerriko hainbat gunetan jarri diren informazio-aulak; Udaleko langileak Tokiko Agenda 21en garrantziari buruzko sentsibilizazioa eta kalitatean oinarritutako kudeaketan prestatzea; informazio-kanpainak; irizpide jasangarrien administrazio-pleguan sartzea, etab.

Ekintzak abiaraztearen eragina neurtzeko jasangarritasunaren adierazle bat daukagu, baina egun ez du informazio garrantzitsurik eskaintzen urtebeteko informazioa bakarrik bildu baita, eta informazio horrekin ezin da zenbatespen objektiborik egin.

Jasangarritasun-adierazleak	2008	2009	2011	Joera desiragarria	Balorazioa
Herritarren asebetetzea partaidetza-aukerei dagokienez	1,3	-	-	Gehitzea	-

Iturria: guk egindakoa

...alabaina,
partaidetza
oraindik ere
erronka bat
izaten
jarraitzen
du...

Dena den, burututako elkarrizketen bidez eta egindako herritarren foroan jasotako ekarpenek 2. ildo estrategikoan garatutako ekintza argitzen laguntzen du. Horrela, Udalean nolabaiteko “pentsamolde aldaketa” nabari daiteke, eta horren adibidea Tokiko Agenda 21 bera eta horren bidez abiarazitako ekimenak dira (udal-informazioa zabaltzeko neurriak, etab.). Hala ere, ondorioa Tokiko Agenda 21ek Udalaren kudeaketan hobekuntza ekarri du eta partaidetza eta informazioko bide gisa ezarri zen, baina oinarriko arazoak iraun egiten du, hots, ordezkari politiko eta herritarren arteko “zuloak”.

Beraz, politikariak herritarrengana hurreratu behar direla ondorioztatzen da, eta udal-kudeaketaren eremu guztietan “sekulako” partaidetza sustatu, hau da: udal-aurrekontuan, hiri-antolamenduan, etab.

4.2.3. 3. ildo estrategikoa: udalerriaren garapen soziala bultzatzea.

Ildo estrategiko honetan planeko ekintza guztien %21 sartzen dira eta helburu nagusia “udalerriaren garapen soziala sustatzea” da. Aipatutako helburua lortzeko sei ekintza-programa zehazten dira.


7 jarduera
eremu:
immigrazioa,
hirugarren
adina,
berdintasuna,
euskara,
gaztedia,
kultura eta
elkartegintza.

Hurrengo taula honetan hirugarren ildo estrategikoa osatzen duten programak agertzen dira. Horien helburua hurrengo eremuak sustatu eta bultzatzea da: udalerrian bizi diren atzerritar edo etorkinen gizarteratzea; hirugarren adineko pertsonen bizi-kalitatea hobetzea; genero-berdintasuna sustatzea; udalerrian euskara sustatzea; udalerriko gazteei arreta eskaintzea eta udalerrian kultura eta aisialdia sustatzea (ikusi dokumentuaren I. eranskina 1. ildo estrategikoaren ekintza zehatzak zeintzuk diren jakiteko).


EKINTZA PROGRAMAK		EKINTZA KOPURUA
Ø	3.1 P Udalerrian bizi diren atzerritar edo etorkin taldeak gizarteratzeko programa.	ekintza 1
Ø	3.2 P Hirugarren adineko pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko programa	4 ekintza
Ø	3.3 P Genero-berdintasuna sustatzeko programa	4 ekintza
Ø	3.4 P Udalerrian Euskararen erabilera sustatzeko programa	5 ekintza
Ø	3.5 P Udalerriko gazteentzako programa	5 ekintza
Ø	3.6 P Udalerrian kultura eta aisialdia sustatzeko programa	2 ekintza
Ø	3.7 P Udalerrian elkartegintza sustatzeko programa	4 ekintza

Biltzen diren ekintzen ezaugarriei dagokienez, ekintzen %8 "lehentasun txikikotzat" hartzen direla nabarmendu behar da eta gainerako %24k "lehentasun ertaina" dute, eta %68 "lehentasun handia" duten ekintzak dira. Halaber, ekintzen %36ren betearazpena epe laburrerako programatuta dago, %8 epe ertainerako eta ekintzen %56 epe luzerako.

11. Grafikoa. Lehentasunaren arabera ekintza %-k.




12. Grafikoa. Gauzatze-epearen arabera ekintza %-k.



Iturria: guk egindakoa.

Ezarpen-egoerari dagokionez, ekintza bat ere ez dago hasteke edo aurreratuta eta ekintzen %56 inguru amaitzeaz daude eta ekintzen %36 dagoeneko amaituta daude.

13. Grafikoa. 2011ko ezarpen maila.



Iturria: guk egindakoa.

Ekintzen
%100a
aurreratuak
eta amaituak
daude.

b) Erabili diren baliabideak

Inbertsio
osoaren
%28,8a.

3. ildo estrategikoan egindako inbertsioa 4.511.615,75 eurokoa izan da, hasiera batean aurreikusitakoa baino 3.461.615,75 euro gehiagokoa. Ildo estrategiko hau izan da betearazteko inbertsio handiena behar izan duena. Inbertsio gehien behar izan duten ekintzak hauek izan dira: euskararen kalitatea sustatu eta hobetzea: gazteen parte-hartzea hobetzea eta hirugarren adineko pertsonen bizi-kalitatea hobetzea.

Udal-zerbitzu teknikoen parte-hartzeari dagokionez, ekintzen betearazpenean parte hartu duten udaleko sail eta zerbitzuak honako hauek izan dira: Alkatetza, Gizarte Ekintza, Euskara, Gazteria eta Kirola, Informatika, Erakunde Autonomoak, Udaltzaingoa eta Hirigintza eta Obrak.

c) Garatutako ekintzaren eragina eta balorazioa

Ildo estrategiko honen helburu nagusia udalerriaren garapen soziala hobetzea izan da, eta helburu nagusi honen azpian hainbat gai barne hartu dituen helburu zehatzagoak daude, aurreko taulan azaltzen den bezala.

Aipatutako ekintza-planak ekintzetan banatu dira, eta ekintza horiek hainbat ekimenen bidez garatu dira. Jarraian, aurreikusitako ekintzen betearazpenean garatutako ekimen esanguratsuenak aipatzen dira:

- Atzerriko etorkinen gizarteratzea bultzatzea.
Atzerriko etorkinen biztanleriaren gizarteratzeari dagokionez, Tokiko Agenda 21eko Planak gizarteratze-plana burutzea ezartzen du bete beharreko ekintza bakar eta nagusi gisa. Plan horretan ezarritako estrategietatik abiatuta, kulturartekotasuneko bizikidetza eta gizarteratzea sustatzeko ekintzak eta ekimenak abiarazi dira. Plan horren zati gisa, Udaleko Immigrazio Saila buru dela, harrera-programak azpimarratu behar dira, hala nola, online gida, atzerriko jatorria duten ikasleei euskarazko errefortzu linguistikoa, etorkin helduentzako laguntza linguistikoko programak eta kulturartekotasun trukaketarako programak, laguntza psikosoziala eta partaidetza-sentsibilizazio programak eskola-mailan garatzen dena bezalakoak, besteak beste.

- Hirugarren adineko pertsonen bizi-kalitatea hobetzea.
Pertsona nagusien bizi-kalitatea hobetzen saiatzeko hainbat ekimen abiarazi dira, etengabe haziz doan taldea eta oso pertsona heterogeneoz osatutakoa, 50 urte dituzten pertsonetatik hasi, eta 100 urte baino gehiago dituzten pertsonetaraino, behar eta eskaera oso ezberdinak dituztenak. Ildo horretan pertsona nagusien interes eta beharrekin bat datozen hainbat zerbitzu eta programa garatu dira, horietako batzuk Amankomunazgoarekin, elkarteekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean. Hauek azpimarra ditzakegu: “Esperientzia Institutua” 55 urtetik gorako pertsonentzako; Zaindu programa menpekotasuna duten pertsona nagusien zaintzaileentzako laguntza, orientabidea eta aholkularitza, zahartze aktiboa sustatzeko ekintzak eta ahultasun-egoeran dauden 80 urtetik gorako pertsonentzako programa psikosozialak eta pertsona horien beharrak identifikatzeko behatokia sortzea (bakarrik bizi diren 80 urtetik gorako pertsonen azterketa).
- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea.
Berdintasun Sailak emakume eta gizonen arteko berdintasunerako l. Plana egin du. Bestalde, beste ekimen batzuk abiarazi dira, hala nola, jabekuntzarako eskola, eta prestakuntza eta sentsibilizazioko programak etab. ere egin dira.
- Euskara sustatzea.
Ekintza-programa hau garatzearen mesedetan, ekimen hauek abiarazi dira: ikastetxeetan euskararen transmisioa sustatzea normalizazio-planen bidez, bekak, prestakuntza-ekintzak (Aisia programa, ikastaro zehatzak, etab.); euskararen erabilera sustatzea, hainbat esparrutan, Udalean bertan, merkataritzan, aisialdiko jardueretan, etab. adibidez; euskal kultura sustatzea, etab.; euskararen kalitatea sustatzea ekoizpen literarioa sustatuz; teknologia berriak, euskarazko komunikabideei laguntza ematea; euskarazko ekoizpen kulturalari laguntza ematea, etab.
- Udalerrian gazteen parte-hartzea sustatzea.
Ekintza-planean aurreikusitako ekintza gehienak hasi dira: lonjak erabiltzeko ordenantza egitea; gazteen plan estrategikoa egitea ekintza eremu horretan bideratzeko; gazteen eremuan lan egiten duten elkarteei diru-laguntzak ematea; droga-mendekotasunari buruzko diagnostikoa egitea; adingabeko pertsonei alkoholaren salmenta eta kontsumoa kontrolatzeko ekintzak; sorketa artistikorako bekak eta beste batzuk.

- Kultura eta aisialdia sustatzea.
Ekintza nagusienek San Agustin antzokiaren berritzea udalerrian ekoiztuko diren zinema-ekoizpenen ekimenak laguntzea hartzen dute kontuan, horretarako Kultura Sailak sortu duen bekaren bidez.
- Elkartegintza sustatzea.
Elkartegintza sustatzeari dagokionez, hainbat ekimen proposatu dira: elkarteei lokalak uztea; elkarteen mahaia mantentzea; merkataritza-eremuko elkarteekin koordinazioa, etab.

Garatutako ekintzen eraginari dagokionez, ildo estrategiko honetarako aukeratutako jasangarritasun-adierazleek ez dute eraginaren ikuspegi objektiborik eskaintzen. Are gehiago, ez daude ekintza-programa edo helburu partzial guztientzako jasangarritasun-adierazlerik. Bestalde, adierazle batek bakarrik ditu joeraren Balorazioa burutzeko datuak, herritarren asebetetze-adierazlearen kasuan, 2008ko datua bakarrik baitago.

Jasangarritasun-adierazleak	2008	2009	2011	Joera desiragarria	Balorazioa
Atzerriko etorkinen bilakaera	% 5,9	%6,95	% 6,85	Gehitzea	Positiboa
Herritarren asebetetzea zerbitzuen mailari dagokionez. sozialak eta osasun-zerbitzuak	2,8	-	-	Gehitzea	-
Herritarren asebetetzea zerbitzuen mailari dagokionez. Kulturalak jolas-zerbitzuak eta aisialdikoak	2,4	-	-	Gehitzea	-

Iturria: guk egindakoa.

Egindako jardueraren balorazio positiboa.

Beraz, jasangarritasun-adierazleek ez digute garatutako ekintzaren eraginari buruzko argibide askorik eskaintzen, hala ere, burututako elkarriketetatik eta herritarren foroaren batzarretatik lortutako inputari esker, era positiboan baloratu diren ekintzak identifikatu ahal izan dira, eta baita eremu horretako erronkak ere.

Jarduera Beraz, hirugarren adineko pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko garatutako
ildoak ekintzari balorazio positiboa egin zaio, eta baita eskaintza eta azpiegitura
berbideratu kulturei ere. Berdintasunaren gaian ere aurreratu dela ikus daiteke. Dena
behar diren den, gai horietan lanean jarraitzea beharrezkotzat jotzen da, eta hurrengo
alorrak: eremu hauek berriz azertu, ez dela espero zen emaitza lortu uste baita:
elkartegintza, elkartegintza sustatzea, gazteen partaidetza eta euskara sustatzea.
gaztedia,
euskara.


4.2.4. 4. ildo estrategikoa: hirigintza orekatuaren alde egitea eta hirigunearen kalitatea hobetzea.

4 jarduera Ildo estrategiko honetan planeko ekintza guztien %22 sartzen dira eta helburu
eremu: hiri nagusia "hirigintza orekatuaren alde egitea eta hirigunearen kalitatea
espazioa, hobetzea" da. Aipatutako helburua lortzeko lau ekintza-programa zehazten
eraikuntza dira: hirigunearen kalitatea hobetzea, eraikuntzan ingurumen-irizpideak
jasangarria, sartzeko, etxebizitzaren politika soziala sustatzea, eta udalerriko irisgarritasuna
etxebizitza- hobetzea (ikusi dokumentuaren I. eranskina 1. ildo estrategikoaren ekintza
ren politika zehatzak zeintzuk diren jakiteko).
soziala eta
irisgarritasu-
na.


EKINTZA PROGRAMAK		EKINTZA KOPURUA
Ø	4.1 P Hirigunean kalitatea hobetzeko programa	10 ekintza
Ø	4.2 P Eraikuntzan ingurumen-irizpideak sartzeko programa	3 ekintza
Ø	4.3 P Etxebizitzaren politika soziala sustatzeko programa	4 ekintza
Ø	4.4 P Udalerriko irisgarritasuna hobetzeko programa	8 ekintza

Biltzen diren ekintzen ezaugarriei dagokienez, ekintzen %12 "lehenetasun txikikotzat" hartzen direla nabarmendu behar da eta gainerako %38k "lehenetasun ertaina" dute, eta %50 "lehenetasun handia" duten ekintzak dira. Bestalde, ekintzen %23ren betearazpena epe laburrerako programatuta dago, %39 epe ertainerako eta ekintzen %38 epe luzerako.

14. Grafikoa. Lehentasunaren arabera
ekintza %-k.




15. Grafikoa. Gauzatze-epearen
arabera ekintza %-k.



Iturria: guk egindakoa.

Ezarpen-egoerari dagokionez, ekintzen bi heren baino gehiago amaitze edo beteta daude (%31 amaitze eta %38 beteta daude). Dena den, ekintzen %11 hasi gabe daude, %8 hasita daude eta %12 aurreratuta daude.

16. Grafikoa. 2011ko ezarpen maila.



Iturria: guk egindakoa.

Ekintzen
%81a
aurreratuak
eta amaituak.

b) Erabili diren baliabideak

Inbertsio
osoaren
%29,6a.

Bigarren inbertsio handiena jaso duen betetako ildo estrategikoa da. Zehazki, inbertsioa 4.632.755,42 eurokoa izan da, aurreikusitakoa baino 4.632.755,42 euro gehiagokoa. Bestalde, inbertsio handiena behar izan duten ekintzak honako hauek izan dira: hiri-altzarien egoera hobetzea, eraikin publikoetako irisgarritasuna hobetzea eta udalerriko irisgarritasuna hobetzea.

Irisgarritasunerako lantaldeak bultzada handia udal irisgarritasuna hobetzera zuzendutako ekintzen egikaritzan.

Ekintzen betearazpenean parte hartu duten sailei dagokienez, gehienetan Hirigintza eta Obren Saila izan da buru eta sail horrek bete ditu ekintzak, honako hauen laguntzarekin: Tokiko Agenda 21 eta Ingurumena, Alkatetza, Informatika, Kontu-hartzailetza, Kontratazioa eta Udal Ondarea, Udaltzaingoa eta Aukera Berdintasuna. Azpimarratu beharra dago Hirigintza eta Obra Saila eta Tokiko Agenda 21 eta Ingurumen Sailaren artean egon den lankidetzaren estua.

Halaber, 2008an berariaz irisgarritasunerako lantaldea sortu zen, udaleko arduradun politikoei eta zerbitzu teknikoek, eta baita aniztasun funtzionalaren eremuan lan egiten duten eragileek eta herritarrek osatutakoa, udalerriko irisgarritasuna hobetzearen mesedetan.

c) Garatutako ekintzaren eragina eta Balorazioa

Ilido estrategiko honen lorpen garrantzitsuena, azken 4 urteotan burutuz joan diren hirigintza-jarduketetan irizpide jasangarriak sartzea izan da, indarrean dauden arau subsidiarioek ez baitute ikuspegi hain orekatua jasotzen.

Adierazitako helburuak lortzeko abiarazi diren ekimenei dagokienez, jarraian zehazten direnak aipatu behar dira:

- Hirigunearen kalitatea hobetzea.
Garatu diren ekimen nagusiak hauexek dira: zaraten mapa egitea eta hirigintza-garapen berrien azterketa akustikoak egitea eta baita pantaila akustikoak jartzea ere; hiri-agentea kontratatzea hiri-hezkuntzari buruzko informazioa eskaintzeko; hiri-altzarien inbentarioa eta hiri-altzariak mantendu, hobetu eta berritzea; Hirigintzako Aholkularitza Batzordea sortzea; Hiri Debekatuaren Mapa egitea eta arriskugarritasuna murrizteko neurriak hartzea; Hiri-lanen Ordenantza egitea, etab.
- Eraikuntza ingurumen-irizpideak sartzea.
Garatutako ekintzen artean hauek dira azpimarragarrienak: bulego eta etxebizitzaren eraikuntza ingurumena hobetzeko Ordenantza hobetzea; obra eta eraispentetan jardunbide egokiak sartzeko proiektu pilotua garatzea, etab.
- Etxebizitzaren politika soziala garatzea.
Ekintza esanguratsuena, alokairuko etxebizitzan bizi diren 35 urtetik beherako gazteentzako laguntza izan da, udal-laguntza baten bidez.

- Udalerriko irisgarritasuna hobetzea.

Irisgarritasun unibertsalaren eremuan egin da ahaleginik handienetakoa, bai ekonomikoki, bai giza baliabideetan ere. Jarraian ekimen esanguratsuenak aipatzen dira: obra-lizentzia ematean hobariak (legediarekin bat datozen igogailuak jartzeko eta legez irisgarritasun-neurri guztiak betetzea eskatu ezin zaien lokalen kasuan); eraikin publikoak egokitzea (igogailuak jartzea, ekipamendu publikoak eta eraikin publikoak... egokitzea); irisgarritasun unibertsalerako diagnostikoak burutzea biztanleriak gehien erabiltzen dituen eraikinetan (Udaletxea, HAZ eta liburutegia); espaloiak beheratzea eta gaineko pasabideak egokitzea, etab.

3. Irudia: Ermodo Kalea.
Espaloiak beheratzea.



Irisgarritasuna hobetzerak eta eraikuntzan irizpide jasangarriak sartzerak bideratutako ekintzen egikaritzan balorazio positiboa.

Zentzu horretan, proiektu asko garatu dira udalerriko hirigintza-kalitatea hobetzeko helburuarekin. Baieztapen hau ildo estrategiko honen eraginaren jarraipena egiteko aukeratutako jasangarritasun-adierazle batzuk erakusten dituzten emaitzek egiaztatzen dute. Beraz, aipatu beharra dago gero eta eremu publiko gehiago dagoela, eta baita oinezkoentzako azalera gehiago ere. Halaber, kutsatuta egoteko arriskuan dauden lurren azalera murriztu egin da, eta berreskuratutako lurzoru kutsatuaren metroak, berriz gehitu egin dira. Hala ere, lurzoru artifizializatuaren %aren adierazleak joera negatiboa erakusten du lortu nahi den joerari dagokionez, hots mantentze-joera lortu nahi da, baina egia esan gehitu egin da.

Azkenik, etxebizitzaren, etxebizitza sozialaren eta etxebizitza hutsaren arazoarekin lotutako adierazleek ere joera negatiboa dute.

Jasangarritasun-adierazleak	2007	2008	2009	2011	Joera desiragarria	Balorazioa
5000 m2 baino handiagoak diren eremu publikoen erabilgarritasuna (%)	% 18,6	%18,6	%18,7	19	Gehitzea	Positiboa
Lurzoru Artifizializatua (%)	% 19,7	%19,8	%20,6	%25,2	Mantentzea	Negatiboa
Lurzoru kutsatua (m2)	305.574 m ²	301.361 m ²	-	-	Gutxitzea	Positiboa
Lurzoru kutsatuak berreskuratzea (m2)	0	4.213	-	-	Gehitzea	Positiboa
Oinezkoentzako azalera (%)	3,4	6,9	6,9	6,9	Gehitzea	Positiboa
Babes ofizialeko etxebizitzak (eraikitako etxebizitza kopurua/1000 biztanle)	9,1	2,5	2,5	-	Gehitzea	Negatiboa
Etxebizitza hutsak (etxebizitza hutsen %)	12,1	12,2	12,8	-	Gutxitzea	Negatiboa
Eraikitako inguruaren kopurua eta kalitatearekin herritarren asebetetzea	-	2,7	-	-	Gehitzea	-

Iturria: guk egindakoa

Ildo horretan, bai burututako elkarriketetan, bai herritarren foroaren batzarretan, irisgarritasun hobetzeko, hiriko altzariak hobetzeko, etab. egindako ahalegina berresten da. Dena den, hurrengo ekintza-planaren eztabaida gisa balorazio negatiboa izan duten adierazleekin lotura duten gai batzuk aurreratu dira dagoeneko:

- Egungo hirigintza-politika: sortzen den galdera nagusia eredu honekin jarraitu nahi den ala ez da, eta Durangon lurzoruaren okupazioa nabarmen hazi izanaren irudipena dagoela. Laster Hiri Antolamendurako Plan Orokor berriaren diseinua hasiko dela ikus daiteke, eta horrek Durangoko etorkizuna baldintzatuko du. Lotutako gai gisa, trena lurperatuta libre geratuko den lurzoruak ekarriko duen erroka ikus daiteke.

Etorkizuneko
erronka:
Hirigintza
Plangintza
Orokorren
berrikuspena.

- Egungo etxebizitza-politika: eztabaida hau hirigintza-politikari ere oso lotuta dago. Zentzu horretan, azken urteotan Durangon asko eraiki dela uste da. Etorkizunerako erronka gisa etxebizitza hutsa alokairuaren merkatura merkaturatzea lagunduko duten politikak abiaraztea identifikatzen da. Bestalde, Durangon birgaitu beharko liratekeen etxebizitzaren stocka dagoela ikus daiteke.

4.2.5. 5. ildo estrategikoa: udalerriko ingurumen-kalitatea hobetzea.


6 jarduera eremu: erren kalitatea, uraren kudeaketa, mugikortasun iraunkorra, aire eta zarataren kalitatea, zaborren kudeaketa, eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak.

5. Ildo estrategiko honetan planeko ekintza guztien %43 sartzen dira eta helburu nagusia “udalerriko ingurumen-kalitatea hobetzea” da. Aipatutako helburua lortzeko sei ekintza-programa identifikatzen dira: ibaien ingurumen-kalitatea hobetzea, uraren hornidura-sarearen kudeaketa hobetzea eta uraren kontsumoa gutxitzea, garraio publikoa hobetzea, mugikortasun jasangarria sustatzea, kalitate akustikoa eta atmosferikoa hobetzea, hiri-hondakinen kudeaketan jasangarritasun-irizpideak sartzeko eta eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak hobetzea (ikusi dokumentuaren I. eranskina 1. ildo estrategikoaren ekintza zehatzak zeintzuk diren jakiteko).


EKINTZA PROGRAMAK		EKINTZA KOPURUA
Ø	5.1 P Ibaien ingurumen-kalitatea hobetzeko programa	3 ekintza
Ø	5.2 P Uraren hornidura sarearen kudeaketa hobetu eta ur kontsumoa gutxitzeko programa	8 ekintza
Ø	5.3 P Garraio publikoa hobetu eta irisgarritasun jasangarria sustatzeko programa	10 ekintza
Ø	5.4 P Kalitate akustiko eta atmosferikoa hobetzeko programa	12 ekintza
Ø	5.5 P Hiri-hondakinen kudeaketan jasangarritasun-irizpideak sartzeko programa	12 ekintza
Ø	5.6. Eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak hobetzeko programa	8 ekintza

Biltzen diren ekintzen ezaugarriei dagokionez, ekintzen %17 "lehentasun txikikotzat" hartzen direla nabarmendu behar da eta gainerako %29k "lehentasun ertaina" dute, eta %54 "lehentasun handia" duten ekintzak dira. Bestalde, hurrengo grafikoetan ikus daitekeen bezala, ekintzen %33ren betearazpena epe laburrerako programatuta dago, %33 epe ertainerako eta ekintzen %34 epe luzerako.

20. Grafikoa. Lehentasunaren arabera
ekintza %-k.




21. Grafikoa. Gauzatze-epearen
araberako ekintza %-k.



Iturria: guk egindakoa

Ilido honen betearazpen-mailari dagokionez, ekintzen %17 hasi gabe daude, %4 hasita daude, %15 fase aurreratuan daude, eta erdia baino gehiago, hots, %64 amaituta edo beteta (ekintzen %33 amaitzeaz eta %31 beteta). Abiarazi ez diren ekintzak egotearen arrazoi nagusia ekintza gehienek betearazpenaren eskumenak udalaz gaindikoak direlako da.

22. Grafikoa. 2011ko ezarpen maila.



Iturria: guk egindakoa

Aurreratu eta
osatutako
faseko
ekintzen
% 81a.

b) Erabili diren baliabideak

Inbertsio
osoaren
%36,28.

Azken ildo estrategikoak behar izan du aurrekonturik handiena betearazteko, dena den, ekintza gehien biltzen dituen ildoak ere bada. Ildo honetan inbertsio ekonomikoa 5.667.321,35 eurokoa izan da. Gainerako ildo estrategikoak ez bezala, kasu honetan planifikatutakoa baino gutxiago bete da, zehazki, hasierako planifikazioan 5.997.700 euroko inbertsioa aurreikusten zen, bete dena baino 330.378,65 euro gehiago hain zuzen ere.

Inbertsio gehien behar izan duten ekintzak hauek dira: Durangoko bidegorrien sarea, trafikoa antolatzeke neurriak, ur-jarioak murrizteko plana, eraginkortasun energetikoko neurriak eta airea kutsatzen duten iturriak identifikatzea eta neurri zuzentzaileak martxan jartzea.

Udaleko sailen parte-hartzeari dagokionez, Tokiko Agenda 21 eta Ingurumena eta Hirigintza eta Obrak tandemak izan da buru ekintza gehienetan eta beraiek bete dituzte. Bien arteko harremana oso estua izan da. Dena den, beste sail batzuk ere parte hartu dute: Informatika, Kontu-hartzailetza, Erakunde Autonomoak eta Alkatetza.

Bestalde, ildo estrategiko honetan biltzen diren ekintzak abiarazi eta jarraitzeko honako lantalde hauek burutu duten lana azpimarratu behar da: Mugikortasun Jasangarriaren Lantaldea, Airearen Kalitatea eta Akustikaren Lantaldea eta Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeke Lantaldea.

c) Garatutako ekintzaren eragina eta balorazioa

Adierazitako helburuak lortzeko abiarazi diren ekimenei dagokienez, jarraian esanguratsuenak zehazten dira:

- Ibaien kalitatea hobetzea.

Helburu hori lortzeko hainbat ekimen garatu dira: jarduketa-protokoloa Eusko Jaurlaritzako Ur Zuzendaritzarekin; isuriaren barneko erregistroa sortzea, etab.

- Uraren hornidura sarearen kudeaketa hobetu eta ur kontsumoa gutxitzea
- Lorpen gehien egin den helburuetako bat da. Zentzu horretan, ekintzarik nagusienak hauek izan dira: udalerriko edateko uraren sarearen modelizazio digitala ondoren GIS bat martxan jartzeko; ur-isuriak murrizteko plana diseinatu eta abiaraztea sarearen sektorizazioarekin; eraikin publikoen kontsumoa arrazionalizatzeko sistemak sartzea; bideak garbitzeko ibaiko ura aprobetxatzeko proiektua egitea, proiektu horretarako Konfederazio Hidrologikoak baimena eman du; Obren Lantaldeak EKOSCAN Plus ziurtagiria lortzea, etab.

- Garraio publikoa hobetu eta irisgarritasun jasangarria sustatzea

3. irudia: Landako etorbideko bidegorria.



Ekimen esanguratsuenak hauek izan dira: udalerrian Mugikortasun Jasangarriaren Plana burutzea; Durangoko bidegorriak eta bizikleta erabiltzeko sentsibilizazio-kanpainak burutzea eta bide-hezkuntza diseinatu eta burutzea; Mugikortasun Jasangarriaren Planean bildutako eskaerak Bizkaiko Foru Aldundiari helaraztea; Zumalakarregi kalean isurpen txikiko eremua sortzea, asteburuetan zirkulaziorako itxiz; trafikoa antolatzen neurriak eta abiadura murrizteko neurriak; ibilgailu elektrikoentzako hobariak;

disuasio-parkingen egokitzapena, etab.

- Kalitate atmosferikoa eta akustikoa hobetzea.
Kalitate akustikoa eta atmosferikoa hobetzeko garatutako ekimenen artean hauek dira azpimarragarrienak: Durangoko airearen kalitateari buruzko informazioa herritarren eskura jartzea; Airearen Kalitateari buruzko Plana onestea; IPPC enpresen ikuskapena eta jarraipena egitea; galdaren inbentarioa burutzea eta ordezkatzeko laguntza eskaintzea; trakzio mekanikodun ibilgailuen zergan hobari ekologikoak ematea CO₂ igorpenen arabera; NOx-zko asfalto ekologiko xurgatzailea jartzea Montevideon (Ecobide proiektua); usain txarren neurketa; Zaraten mapa egitea; Azterlanek burututako azterketa airea kutsatzen duten iturri kutsatzaileak identifikatzeko eta partikulen karakterizaziorako; eskualdeko kutsadura atmosferikoaren azterketa; hiri-obretako ingurumen-jardunbide egokien ordenantza egitea herritarrei arazoak gutxitzeko, etab.

- Hiri-hondakinen kudeaketan jasangarritasun-irizpideak sartzea.
Garatu diren ekimen esanguratsuenak hauek izan dira: komunikazio, kontzientziazio eta prestakuntzako kanpainak; edukiontzien kokapenak aztertzea; dendetan berriz erabiltzeko poltsak banatzea; jai eta ekitaldietan hondakinen sorrera murrizteko neurriak hartzea, etab.
- Eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak hobetzea.
Garatu diren ekimen esanguratsuenek dagokienez, hauek aipatu behar dira: ingurumen-irizpideekin eraikitze ordenantza onestea; argi publikoen eraginkortasun energetikorako plana betetzea; aldaketa klimatikoaren aurka borrokatzeko plana egitea; eraikuntza publikoetan iturri berriztagarriak jartzea; udal-eraikuntzetan (udaletxea eta Landakoko erabilera anitzeko gela) eraginkortasun energetikoa hobetzeko proiektua burutzea; ordenantza fiskalen, JEZ, OHZ zergen eta Eraikuntza, Instalazio eta Obren Zergaren bidezko hobariak sistema berriztagarriak eta beste batzuk sar ditzaten.

Garatutako ekintzek eragin positiboa izan dute.

Garatutako ekimenen eraginari buruz, aukeratutako jasangarritasun-adierazleek emaitza positiboak dituzte helburu guztietan, energia-kontsumoa eta gasaren kontsumoarekin lotutako adierazleetan izan ezik. Dena den, azken kasu honetan, argi publikoen energia-kontsumoaren adierazleak ere datu positiboak ditu. Beraz, garatutako ekintzaren eragina positiboa izan dela ondoriozta daiteke.

Jasangarritasun-adierazleak	2007	2008	2009	2010	2011	Joera desiragarria	Balorazioa
Bidegorrien sarea (%)	% 0,3	%0,3	% 4,95	%5,9	% 5,9	Gehitzea	Positiboa
Ibilgailuak (auto-kopurua)	11.169	11.333	11.409	11.056	-	Gutxitzea	Positiboa
Garraiatzeko era: autoz (%)	-	24	18	-	-	Gutxitzea	Positiboa
Garraiatzeko era: autobusez	-	2,8	19	-	-	Gehitzea	Positiboa
Garraiatzeko era: Bizikletaz	-	1	3	-	-	Gehitzea	Positiboa

Jasangarritasun-adierazleak	2007	2008	2009	2010	2011	Joera desiragarria	Balorazioa
Hiriko airearen balorazioa (airearen kalitatea ona den egunen kopurua)	208	232	348	360	318	Gehitzea	Positiboa
Ettxeko uraren kontsumoa (l/bizt/eguna)	118,7	116,6	116	116,9	115,5	Gutxitzea	Positiboa
Udalerriko guztizko eskaera (altan) (m3)	3,08 milioi	2,9 milioi	3,06 milioi	2,7 milioi	2,5 milioi	Gutxitzea	Positiboa
Hornidura-sarearen isuriak (%)	43,5	41,4	% 41,6	%37,1	%33,5	Gutxitzea	Positiboa
Saneamendu-sarera konektatuta ez dauden etxebizitzak (%)	-	-	%0,2	%0,1	-	Gutxitzea	Positiboa
Hiri-hondakinen sorrera (Kg/bizt/eguna)	1	1,03	0,98	0,97	0,95	Gutxitzea	Positiboa
Hondakinen birziklapena (birziklatua %)	21,8	22,1	22,6	23,1	24,4	Gehitzea	Positiboa
Elerktrizitatea eta gas naturalaren etxeko kontsumoa (tep/bizt/urtea)	0,27	0,24	0,2	0,3	-	Gutxitzea	Negatiboa
Elektrizitatea eta gas naturalaren kontsumo osoa	19.296	18.343	15.725	16.976	-	Gutxitzea	Negatiboa
Argi publikoaren energia-kontsumoa (KWh/bizt/urte)	90,1	77,6	115,8	99,2	51,2	Gutxitzea	Positiboa
Udalerriko berotegi-efektudun gasen igorpenak	99.143	97.349	97.349	-	-	Gutxitzea	Positiboa
Udaleko berotegi-efektudun gasen igorpenak		2.690,5	2.501			Gutxitzea	Positiboa

Iturria: guk egindakoa

Etorkizune-
ko
erronkak:
mugikorta-
sun
iraunkorra,
kalitate
akustikoa,
ibaien
kalitatea
eta
hondakinen
kudeaketa.

Adierazleek dituzten emaitzak positiboak badira ere, burututako elkarrizketetan, zein egindako herritarren foroan, oraindik ere hobetu daitezkeen eremuak ikus daitezke. Zentzu horretan, mugikortasun jasangarriaren gaia argien identifikatzen den lan-eremuetako bat da: garraio publikoa hobetzea (Gasteizekin loturak, etab.) egungo TAO sistemak eztabaida asko sortzen du; disuasio-parkingak; bidegorrien sarea handitzea, etab.

Bestalde, beste arlo batzuetan lan egiten jarraitzea ere beharrezkotzat jotzen da, hala nola: biodibertsitatea, ibaien kalitatea eta hobetzea eta garbiketa, hondakinen kudeaketa, zarata, etab.

I. ERANSKINA. EKINTZA PLANAREN AKZIOEN ERLAZIOA

IE 1. GARAPEN EKONOMIKO OREKATUAGO, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRAGO BATEN ALDEKO APUSTUA EGITEA

P 1.1. Nekazaritza ekologikoa bultzatzeko programa

- 1.1.1. Nekazaritza ekologikoa indartzea.
- 1.1.2. Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikorako ustiapenak ezarri nahi dituztenei erraztasunak eskaintzea eta ekimen horiek bultzatzea.
- 1.1.3. Basoen ustiapen iraunkorra bultzatu

P 1.2. Udalerriko dibertsifikazio industrial bultzatzeko programa

- 1.2.1. Industriaren egoera hobetzeko eskualdeko hausnarketa estrategikotik datozen ekintzak udalerrian abiaraztea.
- 1.2.2. Energia berriztagarriez arituko diren enpresen instalazioa bultzatu.
- 1.2.3. Birziklapenaz arituko diren enpresen instalazioa bultzatu.
- 1.2.4. Udalerrian artisauen industriak bultzatu.

IE 2. UDALAREN KUDEAKETA POLITIKA HOBETU

P 2.1. Udalerriaren kudeaketan parte-hartzeko bultzatzeko programa

- 2.1.1. Parte-hartze protokoloa adostu.
- 2.1.2. Aurrekontu parte hartzaileak egiteko modua aztertu

P 2.2. Interes orokorreko informazioaren hedapena eta udal kudeaketa hobetzeko programa

- 2.2.1. Funtzionarioentzat arretarako protokoloa ezarri.
- 2.2.2. Udalak eskaintzen dituen zerbitzu eta funtzioak aztertu eta beste enpresei azpikontratatzeko zaizkienak.
- 2.2.3. Hiritarren arretarako zerbitzua ezarri, eta bere izatea iragarri.
- 2.2.4. Tokiko Agenda 21 prozesuaren berri eman hiritarrei eta udal teknikariei parte-hartzearen garrantziaz.
- 2.2.5. Udalerriko eremu estrategikoetan interes orokorreko informazioa zabaltzeko panelak ezarri (Irungo adibidea aztertu).
- 2.2.6. Udalerriko web orria dinamizatu.
- 2.2.7. Udalaren eta interes orokorreko informazioa jasoko dituen aldizkaria egiteko aukera aztertu.
- 2.2.8. Kontratazio publikoa iraunkortasun irizpideekin egitea: dimentsio sozial, etiko eta ingurumeneko (adibidez, energia berriztagarriak kontratatzea).

IE 3. UDALERRIAREN GARAPEN SOZIALA BULTZATU

P 3.1. Udalerrian bizi den atzerritarren edo etorkinen kolektiboaren integrazio sozialerako programa

- 3.1.1. Etorkinei eta udalerrian bizi direnei begirako integrazio planaren osaketa.

P 3.2. Hirugarren adineko pertsonen bizitza kalitatea hobetzeko programa

- 3.2.1. Hirugarren adineko pertsonen eskaintzen duten potentzialitateari probetsua atera (denbora librea, euren ezagutzak...) boluntario lanen moduko ekimenekin,...
- 3.2.2. Hirugarren adineko pertsonen eta hauek zaintzen dituztenen bizitza kalitatea hobetzeko programa eta zerbitzuak abiaraztea.
- 3.2.3. Hirugarren adineko pertsonentzat ekintzak antolatu.
- 3.2.4. Politika horizontalak hartu Udalean, eremu guztietan hirugarren adineko pertsonak presente izateko.

P 3.3. Genero berdintasuna bultzatzeko programa

- 3.3.1. Gizonezko eta emakumezkoen arteko aukera berdintasuna bultzatu.
- 3.3.2. Hezkuntzaren bidez emakumezkoen eta gizonezkoen egiazko berdintasuna bultzatu.
- 3.3.3. Sentsibilizaziorako kanpainak burutu hiritarren artean.
- 3.3.4. Udaletik lengoaia neutroaren erabilpena bultzatu.

P 3.4. Euskararen erabilera bultzatzeko programa

- 3.4.1. Euskara transmititu.
- 3.4.2. Euskararen erabilera bultzatu eremu sozial denetan.
- 3.4.3. Hizkuntzaren kalitatea hobetu.
- 3.4.4. Tokiko Agenda 21eko Ekintza-Planeari txertatu Euskara Planeko ekintzak.
- 3.4.5. Aztertu zergatik Bizkaiko udalerri batzuetan kalean egiten den euskararen erabilera garrantzitsua den eta Durangon kontrakoa gertatzen den.

P 3.5. Udalerriko pertsona gazteentzat programa

- 3.5.1. Araudia osatu etxabeen erabilpenaren inguruan.
- 3.5.2. Udal bizitzan pertsona gazteen parte-hartzea bultzatu.
- 3.5.3. Drogamenpekotasunaren (substantziak eta alkohola) inguruko diagnostikoa egin Durangon.
- 3.5.4. Autoritateen eskutik adin txikikoei alkohola saltzen dieten taberna eta dendeakiko kontrol zorrotza ezarri.
- 3.5.5. Liburutegiaren ordutegia zabaldu asteburuetan.

P 3.6. Udalerrian kultura eta aisialdia indartzeko programa

- 3.6.1. San Agustín antzokia berritu.
- 3.6.2. Udalerrian sortzen diren zinema ekoizpen ekimenak babestu.

P 3.7. Udalerrian asoziazionismoa bultzatzeko programa

- 3.7.1. Elkarleen eta Udalaren arteko eta elkarleen euren arteko komunikaziorako eta elkarlanerako bitartekoak ezarri.
- 3.7.2. Euren ekimenak egin ahal izateko aukerak (eremuen erabilera...) eskaini elkarteei.
- 3.7.3. Euren intereseko informazioa hedatzeko aukera eskaini udal web orrian elkarteei (egin behar dituzten ekintzak...)
- 3.7.4. Auzotarren elkarteak sortzea bultzatu eta daudenak indartu.

IE 4. HIRIGINTZA OREKATU BATEN ALDE EGIN ETA HIRIGUNEAREN KALITATEA HOBETU

P 4.1. Hirigunearen kalitatearen hobekuntzarako programa

- 4.1.1. Eremu berdeen beharraren gaineko azterketa egin.
- 4.1.2. Zarata sortzen duten eremuen (industria, aisialdikoak...) eta alboko bizitegien arteko barrera fisiko eta bisualak ezarri.
- 4.1.3. Kalearen eta lorategien garbitasunaren inguruko sentsibilizazio eta komunikazio plana osatu.
- 4.1.4. AHT proiektuak udalerrian izango duen ingurumen inpaktuaren inguruko ebaluaketaren emaitza hedatu.
- 4.1.5. Hiriko higigarrien egoera hobetzeko neurriak hartu.
- 4.1.6. Beste erakunde batzuen laguntzaz eskualdeko hirigintza planeamendua koordinatu.
- 4.1.7. Hirigintza planeamendua adosteko parte-hartze tresna berritzaileak ezarri.

- 4.1.8. Zakurren jabeak direnak eremu publikoak garbi izatearen garrantziaz kontzientziatu.
- 4.1.9. Herri lanak eta hirigintzak jarduerak arautzen dituen prozedura / protokoloa berrikusi, hiritarrei egiten zaien enbarazu txikitu asmoz.
- 4.1.10. Hautetsiak liberatzeko aukera aztertu jarduera publikoaren eraginkortasuna hobetzeko.

P 4.2. Eraikuntzan ingurumen irizpideak txertatzeko programa

- 4.2.1. Etorkizuneko eraikuntzei "Euskadiko Autonomia Erkidegoko Etxebizitza Eraikuntzara Iraunkorrerako Gidaren" aholkuak aplikatu.
- 4.2.2. Eraikuntza eta lanen baimenen jarraipena egin iraunkortasun irizpideen aplikazio mailari dagokionez.
- 4.2.3. Eraikuntzen erauztean sortutako hondakinen jarraipena egin.

P 4.3. Etxebizitzaren politika soziala bultzatzeko programa

- 4.3.1. Etxebizitza tasatua lehenetsi bestelako etxebizitza moten gainetik.
- 4.3.2. Etxabe hutsak etxebizitza gisa erabiltzeko aukera aztertu.
- 4.3.3. Aztertu lehen etxebizitza salneurri iraunkorrean eskaintzeko aukera.
- 4.3.4. Aztertu zergatik etxe hutsak dituztenek ez dituzten alokatu nahi.

P 4.4. Udalerriko irisgarritasuna hobetzeko programa

- 4.4.1. Eraikuntza eta hirigintza lanak exekutatzen dituzten eraikitzaileekiko kontrol zorrotza ezarri irisgarritasuna bermatzeko.
- 4.4.2. Irisgarritasun arazoak konpondu eraikin publikoetan (Astarloa, Udaletxea,...).
- 4.4.3. Irisgarritasunaren inguruan egin behar diren azterketetarako, mugikortasun ezintasunak dituztenen ikuspegia jaso.
- 4.4.4. Pertsonak sentsibilizatu eta ezagutzera eman oztopo arkitektonikoei zer zailtasun sortzen dituzten mugikortasun ezintasuna duten pertsonentzat.
- 4.4.5. Ostalariak eta merkatariak motibatu edo saritu irisgarritasuna bermatzeko moduan euren establezimenduak molda ditzaten.
- 4.4.6. Urtero Udalaren aurrekontuaren zati bat udalerriko irisgarritasuna hobetzeko zehaztu.
- 4.4.7. Udalaren baliabideen egokitzapena aztertu (teknikoak eta ekonomikoak) irisgarritasunaren eremuan egin beharrekoak eta dauden beharrak garatzeko.
- 4.4.8. Udalerriko parke mugikorrerako kontuan izan irisgarritasunaren eta ingurumen inpaktuaren aldagaiak.

IE 5. UDALERRIKO INGURUMEN KALITATEA HOBETU

P 5.1. Ibaien ingurumen kalitatea hobetzeko programa

- 5.1.1. Udalerriko ibaien arroaren garbiketa lanak burutu.
- 5.1.2. Ur kutsatzaileen ibaietarako isurketa kontrolatu (batez ere egun euritsuetan).
- 5.1.3. Mañaria ibaitik hartutako ura kontrolatu, batez ere lehorte garaietan.

P 5.2. Uraren hornikuntza sarearen kudeaketan hobetzeko eta uraren kontsumoa txikiagotzeko programa

- 5.2.1. Uraren kalitatearen eta kontsumoaren gainera datuen monitorizatzea eta zabalpena.
- 5.2.2. Udalerriko sarean ur ihesak murrizteko plana osatu.
- 5.2.3. Uraren banaketa sareko ihes maila erreala zehaztu.
- 5.2.4. Alderatu beste udalerririk eta eskualdeekin erabiltzaileei kobratutako sarearen mantenuaren kostua eta mantenduaren kalitatea.
- 5.2.5. Uraren kontsumoaren arrazionalizazio eta gutxitzerako neurriak hartu, bai instalakuntza publikoetan eta baita eremu pribatuan ere.

- 5.2.6. Uraren Partzuergoari Oiz Mendian dauden ur erretserbak aztertzea eskatu.
- 5.2.7. Erregario eta bidearen garbiketa lanetarako berrerabilitako ur ez edangarria erabili.
- 5.2.8. Uraren inguruko Foro izaerako bilera bat egin, Uraren Partzuergoko ordezkari baten azalpenekin.

P 5.3. Garraio publikoa hobetzeko eta mugikortasun iraunkorra indartzeko programa

- 5.3.1. Mugikortasun iraunkorrerako udalerriko plana osatu.
- 5.3.2. Garraiobide gisa txirrindua erabiltzea bultzatzeko neurriak hartu (segurtasuna ziurtatzeko neurriak, informazioa eta sentsibilizazioa...).
- 5.3.3. Udalerrri bizilagunekin koordinatuta oinezkoen zonaldeak hedatu.
- 5.3.4. Udalaz gaindiko garraio publikoaren kalitatea hobetzeko beste herri erakundeekin koordinazioa (Bizkaibus, Euskotren,...)
- 5.3.5. Hiriguneko autobus bat jartzeko aukeraren bideragarritasuna aztertu.
- 5.3.6. Udalerriko zonalde batzuetan (Landako, Juan Iziar...) trafikoa antolatzeke neurriak hartzea, bizilagunekin koordinatuta.
- 5.3.7. Norberaren ibilgailuaren erabilera mugatzeko neurriak hartzea.
- 5.3.8. Udaltzaingoak eta udaleko beste teknikariek Durangon zehar mugitzeko txirrindua erabiltzeko aukera aztertzea.
- 5.3.9. Bidegorrien sarea garatzea udal eraikinak, kirolekoak eta ikastetxeak lotzeko.
- 5.3.10. Mugikortasun iraunkorraren eremuan beste hiri batzuen esperientziak aztertu (Bordele, Iparralde,...).

P 5.4. Akustikaren eta atmosferaren kalitatea hobetzeko programa

- 5.4.1. Airearen kalitatearen datuen monitorizazio eta hedapena.
- 5.4.2. Industriak eta ibilgailuek egindako atmosferarako igorpenen kontrol neurriak.
- 5.4.3. Bizilagun komunitateek egindako gasolio erreketen kontrol neurriak.
- 5.4.4. Atmosferaren kutsatzaile nagusiak udalerrri mailan zein diren neurtzea.
- 5.4.5. Hotsen mapa osatzea eta proposatutako neurriak osatzea.
- 5.4.6. Atmosferaren eta akustikaren kutsaduraren aurkako eskualdeko jarduera plana diseinatzea.
- 5.4.7. Akustikaren eta atmosferaren kutsadura eta osasun arriskuak zaintzeko Eskualdeko Kontseilua osatzea.
- 5.4.8. Azterlanen proiektuak Durangoko biztanleriaren artean eta herri erakundeen artean (Udala eta abar) hedatzea.
- 5.4.9. Akustikaren kutsaduraren Ikusapen Sarea osatzea.
- 5.4.10. Akustikaren kutsaduraren aurkako neurrietan Udala eredu izatea.
- 5.4.11. Hotsen maparen osaketa prozesuan parte-hartzeko bide aktiboak ezarri.
- 5.4.12. Airearen Kalitatearen Plana abiarazi.

P 5.5. Hiri hondakinen kudeaketan iraunkortasun irizpideak barneratzeko programa

- 5.5.1. Birziklatzearen eta hondakinen sorrera indizeen murrizketaren garrantziaren inguruko kontzientziak neurriak hartu.
- 5.5.2. Birziklatze eta hondakin organikoen edukiontzien beharren eta moldaketen inguruko azterketa bat osatzea.
- 5.5.3. Hondakinen sorrera gutxitzeko beharraren gaineko kontzientziak neurriak hartzea.
- 5.5.4. Plastikoko poltsek eragindako hondakinak gutxitzeko poltsa berrerabilgarriak bultzatzea komertzioetan eta merkatal guneetan.
- 5.5.5. Froga gisa hondakinak biltzeko edukiontzi berriak ezartzearen bideragarritasuna aztertzea (zabor organikoa,...).
- 5.5.6. Udalerriko zonalde ezberdinetan hondakinak jasotzeko edukiontzien egiazko beharrak aztertzea, baita hauen kokapena ere.

- 5.5.7. Hondakinen birziklapena eramateko moduz biztanleriak informatu eta formatu.
- 5.5.8. Durangaldean eta Durangon konpost aurreratua bultzatu.
- 5.5.9. Eskoletan ingurumen hezkuntza neurriekin jarraitzea, bereziki hondakinen alorrean.
- 5.5.10. Hondakin arriskutsuen sortzaile txikien kontrola areagotu (argazki dendak, ...)
- 5.5.11. Festa eta ekitaldi publikoetan hondakinen kudeaketa iraunkorra bultzatu.

P 5.6. Eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak hobetzeko programa

- 5.6.1. Etxebizitzan ziurtagiri energetikoak egitea bultzatzea.
- 5.6.2. Etxebizitzan, argiztapen publikoaren, komertzioaren eta industriaren eraginkortasun energetikoaren planak osatzea.
- 5.6.3. Instalakuntza publikoetan eta sektore pribatuan energia berriztagarriak bultzatzea.
- 5.6.4. Auditoria energetikoak egitea instalakuntza publikoetan eta eremu pribatuko beste sektoreetan auditoriak egitea bultzatzea.
- 5.6.5. Sektoreetako elkarten bidez (merkatariak...) eraginkortasun energetikoaren inguruko sentsibilizazio neurriak hartzea.
- 5.6.6. Hirigintzako jardura berrientzat, publiko eta pribatuentzat, eraginkortasun energetikorako neurriak txertatzea.
- 5.6.7. Igerileku berrien proiektuan eraginkortasun energetikorako neurriak txertatzea.
- 5.6.8. Eraikuntza araudi batekin bat egiten duten ingurumen hobekuntzarako diru-laguntzak ezarri.